

EEBBetan heriotza zigor federala bertan behera uztea aztertzen ari da Bill Clinton

Zigorra aplikatzeko formak aztertzeke eskatu dio senadore demokrata batek lehendakariari

Erredakzioa / Donostia

Polemika sortu da EEBBetan heriotza zigorra erabakitzeke moduagatik. Senadore eta gobernadore batzuek zalantzan jarri dute zigorra aplikatzeko bidea zuzena ote den. Horrek kezkatu egin du EEBBetako lehendakari Bill Clinton, eta heriotza zigorra federala indargabetzea aztertzen hasi da.

BILL CLINTON «oso kezkatuta» dago, Illinois estatuko gobernadore George Ryanek ez duelako gehiago aplikatuko heriotza zigorra estatu horretan. Hala adierazi zuen atzo Etxe Zuriko bozeramaile Joe Lockhartek. heriotza zigorra aplikatzeko era zuzena den ala ez zalantzak dituelako hartu du erabakia Ryanek, eta hori ikertu nahi duelako.

Ryanen erabakiaren ondoren, Russ Feingold Wisconsin estatuko senadore demokratik altxatu du ahotsa heriotza zigorra erabakitzen den moduagatik. Feingoldek gutun bat helerazi dio Clintoni zalantzak azalduz eta heriotza zigorra aplikatzea bidezkoa ote den azter dezala eskatuz.

500dik gora exekutatu dituzte 1976tik

Gainera, EEBBetako Auzitegi Gorenak herenegun bertan behera utzi zuen Alabama estatuan egin behar zen exekuzio bat. Auzitegiak ez zuen argitu zergatik hartu zuen erabakia.

Auzitegiaren aginduak, George Ryan gobernadorearen erabakiak eta Russ Fein-



PAUL SAKUMA / AP

Herritar talde bat, iaz, San Quentino kartzela kanpoaldean, exekutatu behar zuten lagun baten alde errezatzen.

gold senadorearen gutunak zer pentsatua eman diote Clintoni.

Feingoldek gutunean bildu duenez, ez du argi heriotza zigorra modu bidezkoan ezartzen duen estatu bakoitzak. 1976an jarri zen indarrean berriro heriotza zigorra EEBBetan, eta harrezkero, heriotzera zigortutako 500dik gora lagun exekutatu dira.

Illinoisen 12 zigortu exekutatu dira. Baina heriotzaren korridorean

zain zeuden 13 kondenatu exekuziotik salbu geratu dira 1987az geroztik, apelazioen ondorioz, prentsa ikerketengatik edo frogak aurkeztu direlako.

Hori guztia aintzat hartu du Feingoldek, Clintoni zuzendutako gutuna idazterakoan. Baina estatu bakoitzean zigorra aplikatzeko forma zuzena ote den aztertzeke eskatzearekin batera, Feingoldek Clintoni esan dio Justizia idazka-

ri Janet Renori agindu bat emateko: Federazio osoan heriotza zigorra aplikatzen den modua aztertzeke, «Illinoisen azaldutako zalantzak ikusita». Gobernu federalak zigorra aplikatu aurretik «Justizia Departamenduak ziur egon behar du kondentatua erruduna dela; zigorra era garbian eta bidezkoan aplikatzen dela».

Estatu bakoitzak eskumena du heriotza zigorra aplikatzeko eta ezartzeko, delituak komunak badira. Baina delituak federalak direnean Washingtongo Gobernuak du hitza. Besteak beste, droga trafikoa eta erakunde federa- lei erasotzea dira delitu federa- lak.

Delitu federalak

EEBBetako Gobernuak heriotza zigorra jartzeko eskumena du akusatuari delitu federalak leporatzen zaizkionean. Besteak beste, droga trafikoa eta erakunde federa- lei egindako erasoak eta bahiketak dira delitu federalak.

laburrean

T X I N A

■ Falun Gongeko 50 kide atxilotu ditu Poliziak gutxienez

EHUNKA sektakide bildu ziren herenegun Tiananmen Plazan, Pekinen. Alderdi Komunistako zuzendaritza Herriaren Jauregian bildu zen, eta haren aurrean protesta egin nahi zuten. Falun Gong sekta debekatua dago legez, «deabruzko kultura» izateagatik, eta legezbatzeko exijitu zuten. Bat-batean, mutur joka eta bultzaka hasi ziren sektakideak eta poliziak, eta azken horiek gutxienez 50 kide atxilotu zituzten. Azpimarra-

tzekoa da Urte Berriaren etorrera ospatu zutela txinarrek herenegun gauerdian.

M E X I K O

■ Porrot egin dute unibertsitarien eta errektoretzaren arteko negoziaketek UNAM Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Grebarako Batzorde Nagusiko kideak eta Juan Ramon de la Fuente errektorea eta Unibertsitateko Plebiszitoen Berme Batzordeko kideak bildu ziren herenegun. Iazko apirilaz geroztik greban daude ikasleak, tasen igoeragatik protesta egiteko. Grebarekin amaitu nahi zen negoziat-

keta bidez, baina hizketaldietan ez ziren ados jarri bi aldeak.

S U D A N

■ Nazio Batuen hegazkin bat bahitu du talde ezezagun batek

JAKIEN programako Nazien Batuen hegazkin bat bahitu zuten osteguneko Sudanen. Nazio Batuek atzo esan zuten, Fanjaken bahitu zuten hegazkina, Khartumdik 750 kilometro hegoaldera. Bi pilotu eta Nazio Batuetako ofizial bat zeuden hegazkinaren barruan gertakizunak jazo zirenean. *Akhbar al-Joum* egunkari Gobernuaren aldekoaren arabera,

Gobernuaren aldeko milizia batek hartu du hegazkina. Gabirel Tangiyak zuzentzen du milizia.

P A K I S T A N

■ Gutxienez, bost lagun hil dira bi leherketatan

BI bonbak eztanda egin zuten atzo Pakistanen, eta, gutxienez, bost lagun hil ziren. Hyderabadeko tren geltokian geldi zegoen tren batean eztanda egin zuen bonba batek, eta lau pertsona hil ziren. Bizikleta batean lehertu zen bigarren bonba, Lahore hiriko azoka batean (Punjab estatua). Lagun bat hil zen han.

Hiru epaile bihar hasiko dira aztertzen Belgikak eta sei erakundek aurkeztutako helegitea

■ Pinocheten aurkako frogari gehiago aurkeztu dituzte biktima britainiarren senideek

Erredakzioa / Donostia

BELGIKAKO GOBERNUAK eta giza eskubideen aldeko sei erakundek joan den astean aurkeztutako helegitea aztertzen hasiko dira bihar, Londresko Auzitegi Goreneko hiru epaile. Erresuma Batuko Barne ministro Jack Straw Augusto Pinochet aske ez uztea lortu nahi dute aldeek errekurtsorekin.

Straw asmo hori kale-ratu zuen joan den hilean, Pinochet Espainian epaiketa bati aurre egiteko gauza ez dela arrazoituta. Medikuz azterketak izan zituen oinarrian Straw erabakia azaltzeko.

Horren aurka errekurtsioa aurkeztu zuten Belgika eta giza eskubideen aldeko sei erakundek. Helegitea atzera bota zuen Londresko Auzitegi Goreneko epaile Maurice Kayk, baina erabaki hori berriro errekurritu zuten aldeek.

Simon Brown epaileak gidatuko du biharko bista. Bizpahiru egunetan aztertuko dute auzia, eta bizpahiru egunen ondoren jakinaraziko dute erabakia. Adituaren arabera, atzera botako da errekurtsioa eta Straw berehala utziko du libre Pinochet.

Bestalde, Txileko diktadurako biktima britainiarren senideek Pinocheten aurkako frogari gehiago eman dizkiote Londresko Gobernuari.